IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

1HE-EN-08LAB-A

# LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

# ENTZUMEN PROBA

## [ A eredua ]

| | |
|---|---|
| **1. ABIZENA** | **NAN zk.** |
| **2. ABIZENA** | **AZTERKETA EGUNA** |
| **IZENA** | **AZTERKETA TOKIA** |

| | PROBAREN EZAUGARRIAK | AURREIKUSITAKO DENBORA | PUNTUAZIOA (GEHIENEZ) | PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ) |
|---|---|---|---|---|
| ENTZUMEN PROBA | • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.<br>• Hiru entzungai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.<br>• Entzungaien iraupena guztira: 10 min gehienez. | 30-35 min | 20 | 10 |

**Irakur itzazu** ariketa bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## 1. ariketa: aukeratu erantzuna

**Osakidetzako ordezkari bat hizketan entzungo duzu jarraian.**

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

1. **Zer dio kazetariak aurtengo gripe-kasuez?**
   a) Nafarroan gehiago izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) baino.
   b) Euskal Herri osoan 82 kasu.
   c) EAEn izan dira kasurik gehien.
2. **Datuen arabera, zein da epidemiaren egoera?**
   a) Lehen urratsak ematen hasiko da laster.
   b) Hasieran gaude.
   c) Lehenengo asteak pasatu dira.
3. **Noizko espero da unerik gogorrena?**
   a) Txarrena pasatu da.
   b) Ezin da aurreikuspenik egin.
   c) Hiru edo lau aste barru.
4. **Norengan izango du eraginik handiena?**
   a) Gazteengan inoiz baino gehiago.
   b) 15 urtetik gorakoengan.
   c) Aurten, orain arte, gazteengan.
5. **Lurraldeari dagokionez, non du ondoriorik gehien?**
   a) Orain arte Gipuzkoan.
   b) Gipuzkoan besteko indarrik ez du inon izango.
   c) Lurralde bakoitzean egoera desberdina da.
6. **Zer dio aurtengo gripeaz?**
   a) Iazkoaren antza daukala.
   b) Aurreko urteetakoarekin alderatuta, birus desberdinak dituela.
   c) Birusak antzekoak izan arren, ez dela berdin zabaldu.
7. **Zer proposatzen du gripea ez zabaltzeko?**
   a) Jendaurrean eztulik ez egitea.
   b) Aldi baterako mukizapiak erabiltzea.
   c) Ingurua xaboiarekin garbitzea.
8. **Zer egin behar dute gripea daukatenek?**
   a) Antibiotikoak hartu.
   b) Sukarra izanez gero, etxean geratu.
   c) Astebetean Parazetamola hartu.



**GOGORATU:**
**ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN**

## 2. ariketa: aukeratu erantzuna

**Euskadi Irratian Kairon gertatutakoari buruzko entzungaia entzungo duzu jarraian.**

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

**9. Nola esnatu da gaur Kairo?**

a) Zuri-zuri.
b) Hareaz beterik.
c) Argazkiz beterik.

**10. Noiztik ez da gertatu horrelakorik?**

a) Ez dute gogoratzen.
b) Komunikabideek ez dakite.
c) Orain dela mende bat inguru.

**11. Zer gertatu da eskualdeko beste tokietan?**

a) Ez dagoela horrelako denboralerik.
b) Elurte handia izan dela.
c) Betleem eta Jerusalem libratu egin direla.

**12. Nola hartzen du jendeak Euskal Herrian kontu hau, kazetariaren ustez?**

a) Beti pozez.
b) Hasieran emozioz.
c) Axolarik gabe.

**13. Nola deskribatzen du Anek Kairo?**

a) Elurrarekin ederra.
b) Kilometro askoko hiria.
c) Kaosaz beteriko lekua.

**14. Zer dio hango tenperaturaz?**

a) Ez dela hamar gradura heltzen.
b) Egunean kontraste handia izan dutela.
c) Ez duela hotzik egiten.

**15. Zein da hurrengo egunetarako iragarpena?**

a) Tenperatura epela izango dute.
b) Bainujantzia janzteko moduan izango dira.
c) Ez daki, Euskal Herrira datorrelako.



GOGORATU:
ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN

## 3. ariketa: aukeratu erantzuna

**Amaia Beistegi cup cakez arituko da.**

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

**16. Zer ikasi zuen Amaiak?**

a) Arkitektura.
b) Gozogintza.
c) Biak.

**17. Zertan ari da, gaur egun, Amaia?**

a) Ikasten jarraitzen du.
b) Lanean dabil arkitektura-eskola batean.
c) Gozokiak egiten, arkitektura baztertu baitu.

**18. Nola ikasi zuen pastelak egiten?**

a) Gutxi gorabehera, betidanik jakin izan du.
b) Arkitektura-eskolako ikastaro batean.
c) Duen sormenaz gain, ikasi ere egin du.

**19. Nolako pastelak egiten ditu?**

a) Edozein dendatan ikusten ditugunak bezalakoak.
b) Pertsonaren araberakoak.
c) Bat-batean sortzen zaizkion ideiekin egindakoak.

**20. Zer dio koloreaz?**

a) Tinta guztiak ez direla jateko modukoak.
b) Denda berezietara jo behar dugula erostera.
c) Janari-denda guztietan eros ditzakegula tintak.

**21. Gabonetarako zer eskatu diote?**

a) Ez diote gauza berezirik eskatzen.
b) Gabonetan ez dute lanik egiten.
c) Oraindik ez dute eskaririk jaso.

**22. Pastelez gain, zer beste gauza egiten dute?**

a) Pertsona berezientzako galletak egiten dituzte.
b) Detailez betetako mahaiak prestatzen dituzte.
c) Gozoak ez diren jatekoak egiten dituzte.

**23. Nola jar daiteke norbait Amaiarekin harremanetan?**

a) Eskutitz bat idatzita.
b) Sarean hainbat modutara.
c) Momentuz webgunearen bidez bakarrik.

**24. Zer prezio dute pastelek?**

a) Pastel motari begiratu behar zaio.
b) 60 eurotik beherakoak dira.
c) Norberak jarriko dio prezioa.

**25. Non saltzen dituzte produktuak?**

a) Egiten duten guztia, estatu osoan.
b) Urrutira ere hasi dira pastelak bidaltzen.
c) Apurtu daitezkeen gauzak urrun ez.



**GOGORATU:**
**ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN**

■ **1. ariketa: aukeratu erantzuna.**

■ **Entzungaia: Gripea**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | C | 2. | B |
| 3. | C | 4. | C |
| 5. | A | 6. | A |
| 7. | B | 8. | B |

■ **2. ariketa: aukeratu erantzuna.**

■ **Entzungaia: Kairo**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 9. | A | 10. | C |
| 11. | B | 12. | B |
| 13. | C | 14. | A |
| 15. | A | | |

■ **3. ariketa: aukeratu erantzuna.**

■ **Entzungaia: Cup cake**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 16. | A | 17. | A |
| 18. | C | 19. | B |
| 20. | B | 21. | A |
| 22. | B | 23. | B |
| 24. | A | 25. | C |



**GOGORATU:**
**ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN**